

+ Anaitasuna

VIII URTEA - N.º 94

Deposito Legal SS. 1092—1959

Suplemento de la Hoja
ANAITASUNA de Guipúzcoa

URRIA (10) 1962

BARREA BEAR DALA-TA...

Nork eztaki gaurko gizonen barrea guzur-barrea dala? Nork eztaki Jaungoikoarekin bakean ez gagozanean biotzeko barre goxoa ateratea guztiz gatxa dala? Baña danok dakigu egualdi txarraren ostean ona etorten dala, eta gaua jun da gero goizean eguzkia agertzen dala.

Eguzki bat sortu jaku gaurko egun siri-mirilar oneitan be. Eta Berlin'en gañera, la-drilluzko "orma lotsagarriaren" ondoan ain zuzen. Berlin'en, gizonak bildurrez dardaraz dagozan lekuan. Eguzki ori A. Rochus Spieker da. Ezta ainbeste ta ainbestetariko guzur-gizon bat, ez, aragizko eta azurrezko dominikotar maitati bat baño.

Eztakigu gauza asko A. Spieker-eri buruz. Aquisgrane'ko soziedade batek ezau-garri au emon deutso: "Negar-muxin eta seriotasunaren kontrako señalear". Eta bada-kizu zergaitik kondekoraziño polit au? "Kristoren Barri Ona eta Eleizaren dotriña alaitasunez eta umore onez irakasten dauzala"ko".

Umore ona, barre goxoa, baita algarazkoa be, osasunezko arimen eta Jaungoikoaren seme onenen patrimonioa ei da. Jaungoikoaren maitasunagaitik eta aren irazakiakgaitik umore ori erabiltea karidade eder bat da, molo bat baño tristeago dagon gaurko mundu oneri asko komeni jakona.

Illunaren umeak, tristetasuna ta negarra gure bizitzaren ardatza lez ipinten badabe, ondo deritxat A. Spieker'ek alaitasunaren ikurriña oso gora alzataea bere egon-eziñeko bizitzean.

Bon'etik eldu dan informaziño batek diño: "Bere sermoi zartasuekin, periodikueta-ko artikulu argitsuekin, Telebisiñoan eta Radioan egin dituzan jardun bikaiñekin, A. Spieker'ek amaika ardi-galdu batu ditu ar-tegian, bere barre-algara atsegingarrieri eskerrak".

Asko emongo neuke gizon au ezagutzea-gaitik. Ganera Berlin'en, larri-aldiz josita dagon errian bertan barre eragiten deutse gizonari, gizonagan barrea gauza serioa dana dakialako. Ba, biotzeko barrea da gaurko Bakea, Poztasuna ta Itxaropena. Eta birtute onein atzetik, maiuskulakin idazten diranean, Jaungoikoa dago beti.

Ondo dakigu arimako poztasuna urre-gorriak ez dakarrela; baita be ondo dakigu, lur onetako gauzak ez deuskuela ekarriko gure biotzak asetzeko lain beste; baña alperrik. Beti gabiz lurrean eta lurreko gauzakin. Ezin gaitekez geldi egon lurreko gauzak ikutu, mizkatu ta txalotu barik. Ai! zein bearra dan gaurko egunetan biotzondoko barrea!

Karmel Auk

EZKONTZA TXARRA

Ez jat gogoko beti txarto dagoana, oker dagoana esatea, ez; baiña gogoko jat benetan zuria dan gauzari zuria deitutea ta baltza danari baltza deitutea. Egi-zalea naz, irakurle: zu be beste orrenbeste izango zara nunbait; alan uste dot beintzat. Orrexegaitik, bada, gaur ezkontza txarratzaz berba egingo dogu.

1.—EZKONDU BAIÑO LEN

Munduko personarik geienak, ezkontzeari bear dauan inportantzirik ez deutse emoten. Ezkontza mundu onetan egin daiteken gauzarik errezena dala uste dabe. «Ezkontzarako preparatu?» Itaunkera onek ez dauko sentidurik. Batzueri —gitxiri, Jaungoikoari eskerrak!— bardin deutse naiz aregaz naiz onegaz ezkondu; ezkontzea da kuestiñua! Ta, gero, zer?... Gero... arin gogaitu!...

Ezkondu baiño len alkar-ezagutute sakon bat egin bear dabe nobioak. Alkar-ezagutute au ez da ille baten barruan egiten. Alkar-ezagutute onek, jakintsuak diñoenez, urte bi inguru bear dau. Denpora larregi ezta ona; baiña gitxiegi be ez; urte bi inguru da neurria.

Alkar-ezagutute au astean bein ibillita ez da egiten: gitxiago orain domeka gabeko amaiketarik amabietara ibillita bakarrik; ordu ori ez da kale ertzean ganorabakeriak esaten egoteko ordua, oian egoteko ordua baiño. Zoritxarrez, gazterik geienen ezkontzako preparaziñua ordu erretan esaten diran gauzak dira bakarrik. Zer esan daiteke ordu orretan? Aste bakoitzean ordu bat, eta berau domeka gabeko ordua! Zelako familia urtengo dau preparaziñu orregaz ezkontzara doazen gazteengandik? Ezkontzako Sakramentuak ori baiño errespetu ta lotsa aundia goa bear dau; bestela...

2.—EZKONDUTA GERO

Orain ikusi dagigun «gau-txorien» preparaziñu orregaz ezkondu dan gaztea. Zer? Ezkondu baiño len maitasun apur bat ba-egoan; ezkondu ondoren maitasun apur orrexek be iges egin dau. Len alkarrerri begiratuta irribarre apur batek be urteten eutsen; orain orixe be... ez. Ezkonduta illebeten barru bata besteari garraxika asi dira. Ezkonduta urte bi barru, alkar mada-

rikatzen. Lenegotan auzokoak ez entzuteko moduan; gero auzokoak eta... atzerrikoak be entzuteko moduan. Sutondoan maitasuna iges doa. Jatorduan —biak batera jaten dabenean esan gura dot —ixiltasun otza! Senarra beti etxetik urteteko prest. Kanpoan dagoñean etxera joateko gogo gitxi; etxean baiño tabernan gurago... Eta, umeak datozenen?... Ez daukot zer esanik. Orretarako ezkondu?

3.—ORRA OR GURE KRISTINAU FAMILI ASKOREN ETXURA!

Ta, gero, familia gizartearen «oñarria» dala esaten da. Ta, egia; familia da ta familiak izan bear dau gizarte guztiaren oñarria. Famili bari ez dago ez gizarterik, ez elizarik eta ez zurrik.

Gazteak, alegindu zaitezte famili on bat formaten! Alegindu zaitezte ezkontza on bat egiten!...

IDOYAGATAR XABIER



ERAILTZA EDO KRIMEN BAT

Judutarrak Jesukristo illarazteko legearen arauz eraltzea gura izan ebién. Orregaitik Pilatos'eri esari eutsien: «GUK LEGEA DAUKAGU TA LEGE ORREN ARAUZ GAIZKILLE AU ERAILDUA IZAN BEAR DAU».

Egun ontan be beste erailtza edo krimen aundi bat egiteko legearen billa ibilli dira. Egunorokotan irakurri doguz krimen onen zeaztasunak. Azkeneko urte onetan aurdun izan diranak neke ta miñik ez sentitzeko droga edo botika bat atara dabile: THALIDOMIDA. Gaurko gizarteak atsegiñak gura dauz, atsegiñen billa dabil. Gure lepengo gurasoak Paradisuan pekaturik egiñ ez baebien gizartean dana atsegingarria, dana poza ta zoriona izango zan. Bañan Paradisuko pekatuak Adan eta Eba'ren ondorengoentzat ludi ontara ekarri ebazan neke, naigabe ta oñazemiñak, atsekabe ta negar aundiak. Onetariko ondorio bat da Jainkuak Paradisuan Eba'ri esan eutsan au: «ERDIBITZEAN MIÑAK IZANGO DOZUZ». Gizarteak lege ori austeá gura dau. Aurdunak miñik barik aurrak izatea gura dabile. Bañan burla egiñda Jainkoaren lege ori ez dabile aín erreá ausiko. Asmo orregaz THALIDOMIDA detritxon droga ori asmatu dabile. Bañan ume edo momentu baten ezpada, era batera ezpada, beste erabatera beuren soínburuan, beuren sorbaldan Jainkoaren zigorkada susmatuko dabile. Orixe gertatu jakie aurdun izan diranen artean neke, naigabe ta miñak baztertearren botika ori artu dabilezanei. Erdibitzeko orduan beuren begien aurrean muxugorritzko pospolintxo bat ikusi bearrean, beso ta oñik bako izaki itxusi bildurgarri bat ikusi dabile. Orduan biotz-ikarak, orduan negar mingotxak! Il batzuetarako naigabe ta miñak beurekandik baztertutearren, urte askotarako, bear bada, beuren bizitza guztirako naigabe ta atsekabeak. Ta askok atsekabe orreik be ezin jasan. Ardaú mingotxik eziñ edan, ardaú goxoa gura. Ta eguneroko edo izparringiak ekarri dabile egiñe edo krimen itxusi au.

Iparamerikako SHERRY FINKBINE andreak, asmo orregaz botika asko artu ta zer gertatu bear jakon asmatu dabenian, bertako gobernu edo legegilleei aurra-galtzeko eskubidea eskatu ta ezezkoa emon deutsienien, erailtza ori egitea galazota eztagoan nazio batera joan da. Krimen ori egiteko lege baten billa ibilli da. Suezira joan da ta Estokolmoko «CAROLINE» geixotetxean legearen arauz aurra galdu dau. Aur-galtze one-tzaz RADIO BATIKANOAK argi ta garbi berba egiñ dau. Uztaillaren 19'eán esan eban erailtza au krimen bat besterik eztala ta beste krimenak baiño aundiagoa dala legearen arauz

egin dalako. RADIO BATIKANOAK gogor gaitzetsi edo kondenatu dau krimen ori. Ta esan dau andra ori beziñ errudunak dirala orrelako zillegi eztiran legeak daukiezan gizarte, gobernu edo erreñuak. Izan leike gizabidetaz bakoitzak bere ustea izatea. Uste bereziak izan leikie. Bañan gizakiaren ondamenerako, gizartea galbidean ipini leiken legea gizabidea edo zibilizazioa dala sentzundun batek eziñ leike esan. Orrelako legeak onartzen dituan gizartean biar, etzi edo etzilimo agertuko dira ondario negargarriak. Orrela neke, naigabe ta miñetatik igesegitearren Jainkoaren legea oimperatuaz dabil-tzanak, lentxuago edo gerotxuago, soíñean edo gogoan susmatuko dabiez Jainkoaren zigorkada. Barrunbeak edo kontzientziak ez dausie lasai bizitzen utziko. Bakoitzari bere kerizpeak jarraitzen deutan legez, kontzientziaren abots bildurgarriak be dolan leku guztietara jarraituko deutso. Aur-galtzaleak beuren barrunbean, erne edo lo dagozeanean, egunez edo gauéz, beuren bear edo olgetaetan entzungo dabiez orrelako abots bildurgarriak:

Nik argitaratua izan eta argia ikusteko eskubidea neukan; nik neure guraso ta neba-arrebak ezagutu ta beuren babesean beurak maitatuagaz zoríñean bizitzeko eskubidea neukan; ni bataiatua izan, goi-eskerra neregandu ta Jainkoaren legea gordeagaz zeruratzeko eskubidea neukan; zeruan betiraunean zoriontsu izateko eskubidea neukan. Eta zuek, neure gurasoak, maitekero zaindu ta azi bearrean, ardu-ra guztiak baztertu ta lasai bizitzearren galdu nazue, zuek eskubide guzti orreik kendu deustatzue. Bañan ez dozue lasaitasun eta zorionik izango. Gaizki egiñaren ordaiña, oiñartean izan dan legez, aurrerantzean bé, zigorra izango da. Etzan obeago izango denpora alditxo batean neke, naigabe ta miñ txiki orreik jasan eta neure arpegi-izpilluan zeuén arpegiak, zeuén odol eta aragia ikusiaz, neugan zeuén buruak maitatuaz emen ludian zoríñean bizitzea ta gero betiraunean zerutarrak izatea? Konturatu ba ondo. Askotan zigorkadatxo bat jasan gura ez eta milla zigorkada jasan bear izaten doguz. Gogoratu Jesukristo gure Jaunak ume batzuek aurrean eukazala zer esan eutsien beuren ikasleei: «ORRETARIKO BAT GAIZPIDEAN IPINTEN DABENARI OBETO LEGOKIO SAMATIK ERROTA ARRI AUNDI BAT TXITXILIZKA IPINI TA BERE BURUA URPERA BOTATZEA». Ta argitaratu bako aurtxoak galtzen dabilenazanakaitik zer esango ete luke?...



Aita Imanol-ek

Irlandatik

EUROPA BARRIA

Kolegio onetan kaletik urrun biziarren, ezin obeto enteratzen naiz munduan pasetan direan gauzakaz. Goizean goiz, mezea emoten alboko monja komentu batera joaten naiz; eta onantzean, baserriko denda baten eguneroko periodikoak artzen ditut eta Kolegiora eroaten dodaz.


Periodiko guztiz onak dira, batez-bere Inghaterratik datozenak. Interes aundiagaz irakurten dodaz danak, mundua zelan dabillen jakiteko ta bide batez inglesa ikasteko. Arratsalde beranduan, telebisiño gelara joaten naiz; eta antxe egoten naiz pozarren, Irlanda ta Inghaterrako emisiñoak ikusten. Programa asko, ez ditut oraindiño ondo ulertzen; baiña notiziak, polito entenietan dodaz.

Emengo periodikoak —eta bardin telebisiñoak— edozein informaziño zabaltzeko liberralde osoa dauke, inoren bildur barik. Orregatik, beste leku askotan baiño obeto entera dalteke emen munduan jazoten danagaz.

MERKATU KOMUNA

Europaren batasuna. Europaren alkartasuna. Merkatu Komuna. Auxe da emengo periodikoe-tan geien agertzen dan notizia.

Europako naziñoak, alkartuta bizl gura dabe. Batasun aundi bat egin nai dabe, bakean bizitzeko, alkarren arteko asarrakuntzak alden-duteko, batak besteari laguntzeko, progresua geituteko, komunismoa zapaltzeko. Aberri aundi



bat egin gura dabe. Aberri ori, Europa da. Dannon Europa, frontera ta aduana bakoa.

Asmo au, guztiz ederra da. Aita Santuak-bere, asmo ori dauka. Bere itzaldietan, sarri askotan verba egin dau alkartasun orren alde, eta bedelinkatu egin ditu orretarako egiten direan alegiñak.

Orainarte, sei naziño bakarrik batu dira: Frantzia, Alemania, Italia, Belgika, Holanda ta Luxemburgo. Alkartu direanetik ona, len baiño askoz obeto bizi dira, eta izugarritzko pausauk emon ditue progresu bidean.

IRLANDAREN BATASUNA

Irlanda ez da oraindiño alkartasun orretan sartu; baiña, goiz edo berandu, sartu egingo da. Eta orduan, asko obatuko da bere egokera ekonomiko-politikoak, eta oraingo problema asko berez komponduko dira. Auxe uste dabe, beñik bein, emengo periodikoak.

Irlandako problema politikorik aundiena, naziñoaren divisiñoa da. Islea, zati bitan ebagita dago: Goiko Irlanda ta Beko Irlanda. Frontera gogor batek bananduten ditu alderdi biak. Goiko alderdian, txikia izanarren, milloi bat ta la-reun milla habitante bizi dira: eurotariko geienak, protestanteak. Beko alderdia, askoz aundiagoa da; milloi bi ta zortzireun milla lagun

daukoz; ta ia danak, katolikoak dira. Orain 41 urte, Beko Irlandak Inglesakandik independetzia lortu eban; baiña Goiko Irlandak nalago izan eban lengo lez geratu, Inglaterraren menpean.

Manda bietako abertzaleak, pena aundiagaz ikusten dabe naziñoaren divisiño au. Edozer gauza egingo leukee, batasuna jarixteko. Baiña ondo dakie, indarraren bitartez ezin daikeela ezer lortu. Orregaitik, esperantza aundia dauke Europako Merkatu Komunean, Euren ustez, Europa alkartuten danean, Irlandako alderdi biak-bere geldi geldika batu egingo dira.

Ni, Beko Irlandan bizi naiz, Irlandako Errepublikan. Agostuaren asikera, astebeteko batzar aundi bat izan zan emen, Kolegio onetan. Nigeriako berreun baltz batu zirean. Bai, berreun baltz, Nigeriakoak, danak gazteak, Irlanda ta Inglaterrako unibersidadeetan estudietan dagozanak.

Euren aberriko gauzen gaiñean verba egiteko bildu zirean. Eurakaz batera, Inglaterrako diputadu bat etorri zan. Konferentzia baten, diputadu orrek guztiz gogor verba egin eban Irlandaren divisiñoaren kontra; eta iparraldeko Irlandeseri esan eutsen, eldu dala sasoia, Inglaterrari agur egiteko ta egoaldeko anaiakaz ainbat ariñen alkartzeko.

Alan izan daitela.

Eleiza guztiko barriak

Prantzisko Koenig, Vienako arzobispoari Poloniako agintariak ez deutsoe polakoen Czertochowa-ko Ama Birjiñaren jaietarako muga igaroten itxi.

Norteamerikan arraza baltzeko 983 monja dagoz.

Indian katolikoak sei milloi ta berreun milla dira. Indiak 439 milloi biztanle ditu.

Goan, oraintsu arte portugaldarrena izandako lurraldean, eskola pribadoetan dotriña erakustea galarazo egin da. Goan irutatik bat katoliko dira.

Inglaterrako anglikanoen eleizburu dan Michel Ramsey arrituta etorri da Rusiatik, Moskun erlijioaren kontra egiten daben propaganda ikusirik.

Kanadako abade geienak baserriko semeak di-

ra. Eunetik ogeitazortzik anai-arrebaren bat pralle edo monja dauke.

Alemanian Paderborn-eko Obispoak bere eleizbarrutiko eleiza guztietan ez kanpairik joteko eskatu dau illuntzeko zortziretatik goizeko zazpirak bitartean.

Rusian 30.000 abade ortodoxo dagoz 40 milloi kristiñauentzat. Azken urteotan 74 eleiza itxi dabez Ukrainian. Oraindik 20.000 eleiza ta kapilla, 60 konbentu ta seminario bi dagoz 1.300 abade-gaiekin Rusia guztian.

Colombian, Medellin-eko arzobispoak, Tulio Botero Salazar-ek, bere Gotzai-etxea langille-auzo batean ipiñi dau. eta egunero biargille bi artzen dauz eurekaz batean bazkaltzeko. Ejenplu eder au Ego amerikako periodiku ta aldizkari guztiak txaloka zabaldu dabe.

BURUKO MIÑAK KENTZEKO

DIRUA IRABAZTEKO, OBARIK EZ!

Ameriketara joan, diñoe batzuk. Edo Austra-
liara, edo itxasora.

Kia! Enago orretan. Zertarako orrenbeste bu-
ruko-miñ? Ba-dago era errezago ta politagorik.
Neuk be ez neban siñistuko, ikusi ezpaneu. Txin-
pas-ek erakutsi eustan.

Txinpas nor zan? Gauza aundirik ez: pobre bat,
eskeko bat, aor. Baña bizi-gura aundia eukana.
Ta ondo bizi gurea. Biarrik egin barik, jakiña!

Zer asmau ebalá uste dozue? Aterik-ate ibi-
lii? Eleiz-ondoren baten jesarri, txakur-aundi
bat noiz jausiko? Ez, mutillek. Ori baño polita-
gorik.

—Zorro bat aurkituko dot, bai? egalen ba-
ten —esan eban kolkorako—, eta katame bat
estu. Eta katameari miau batzuk eragiñaz, nork
jakin zenbat diru irabazi al izango dodan? Zo-
rionekoa zeu, Txinpas!...».

* * *

Urrengo goizean goiz lanerako prest egoan, eta
Petra-neko baserrirantz jo eban zorro eta katu
billa. Katu billa esan dot? Ez, kontu! Katu bi-
lla ez: katame billa.

Zorroa errez aurkitu eban taket batetik din-
gilizka. Katuek be aratxuago ikusi ebazan, be-
dar-siku ganean, lo gozoan. Lau? Bost? Ezta-
kit zenbat. Zein zan baña euretarik katamea?
A, bai: axe, katakumekaz egoana. Ixil-ixil joan,
ta ra!, eskua bota zorrora sartu eban. Txinpas
baño zoriontsuagorik nor gero munduan? Zorroa
lepora bota, eta:

—«Orain jende artera, mundurik mundu
—esan eban—, jende artera, Txinpas, dirua ira-
baztera».

* * *

Erriko plazara eldu, eta deadarka asi zan:

—«Entzun, guztlok, entzun! Dirua irabazi gu-
ra dozue? Neuk erakutsiko deutset era errez
bat...».

Batu iakon, bai, jendea inguruetatik, aundi
ta txiki, gizon eta andra, zer izangoaren iora-
nez.

—Ederto, lagunok! —jarraitu eban Txinpas-
ek—. Ezarrie damutuko ona etortiaz. Aberas-
tuteko bide bat dakarstsuet. Begira zelan. Emen

zorro onetan piztitxu bat daukot, animali bat,
konturatu daikezuenez. (Ta ostikada bat emon
eutsen onetan atamiari). Igarten badozue zein
pizti dan barruan dagoana, bost ogerleko emon
deutsuedaze bakotxari, bost ogerleko!! Baña
orretan parte artzeko pezeta bana emon bear
deustazue aurretik».

Ezan iñor geratu pezeta ori Txinpas-en txa-
pelera bota barik. Igarriko ez eben ba zein zan
piztia, miauka egoan-da?

* * *

Txinpas-ek, poltzikoak diruz bete-bete egin
ondoren, generatu eutsen abots aundiz:

—Ixi, xixi apurtxo baten! Orainxe atarako dot
guztion aurrera zorroan dagoan piztia. (Ta bes-
te ostikada bat, katua miauka asi zedin). Baña
aurretik igarri eidazue zein piztia dan barruan
dagoan au».

—Katua, katua! —erantzun eutsen danak bal-
-batera.

—Katua, katua! —erantzun eutsen danak
bat-batera.

Esan baño ez, eta Txinpas-ek, samatik oratu-
ta, kanpora atara eban, guztien aurrera.

—Irabazi egin dogu! Katua da izan be! —poz-
tu ziran danak.

Baña Txinpas-ek, deadar aundi bategaz ixil-
du, ta itaundu eutsen:

—Ziur zagoze katua dala?

Baaai! —erantzun eutsen barreka.

—Ba nik ezetz diñotsuet, katua ezta!!

Esan ba-eban, esan eban. Ango abar-otsa!
Ango iskanbilla! Ango ukabillak jasotzea!

—Naikoa da zaratarik! —ixildu ebazan Txin-
pas-ek—. Joan erriko alguazil jaunarengana, ta
datorrela ona auzi au epaitu daglan.

* * *

Laster zan an alguazil jauna.

—Zer jazoten da ba emen? —itaundu eutsan
onek Txinpas-eri.

—Zer jazoten dan? Nik egitzat daukodan gau-
za bat, oneik guzurtzat artzen deustela.

—Zein da ba gauza ori?

—Ara, jauna: oneik, onenbesteko bat jokatu deuste emen, zorro onetan, katu bat dagoala, ta ni esan deutset, ta oraintxe be auxe diñot, ezstala katua. (Miauka asi zan orduantxe katua).

—Kontxo, kontxo! —esan eban alguazillak—. Ta zer da ba orduan katua ezpada? Ori katua da. Neuk ez dodaz entzuten ba bere miauak?.

—Zenbat jokatu gura deust ba beorrek be ez dala katua? —itaundu. eutsan Txinpas-ek alguazillari—. Ogerleko bat?

—Baita ogei bel!

—Eginda!

Txinpas-ek barrero, kokotetik elduta, atara eban kanpora zorroko piztia ta alguazillari erakutsiaz esan eutson arro-arro:

—Begiratu, begiratu, alguazil jauna! Ta ordaindu diruok, katua barik katamia da-ta, katamia!!!

Izan be, «zeozertxuren» azpira begiratu eutsanean, lots-irribarrez baña, baietza emon eutsan alguazil jaunak Txinpas-eri. Ezan katua. Katamia zan denganiñoa alakoa!

* * *

Barre egin? Asarretu? Nik eztakit. An danetarako egoan. Norbaitek esan be esan eban, zorroan bertan sartuta, katame ta guzti errekarabota bear zala Txinpas.

Baña, gorantziak artu egizak! Ordurako Txinpas andik anka eginda egoan, beste erri bateko plazan, joko bardiñegaz txapela diruz betetan...

Félix Bilbao

GURASOERI ZEOZER

Urte gitxi barru gaurko mutikoak izango dira guri aginduko deuskuenak. Emongo daberen frutua? Ba... emoten deutzazuen edukaziñoan dago.

Gaiza bitik dator, batez be, semien edukaziño on: euren problemaren ezagutzatik, eta gurasoen edukaziñotik. Ezagutza da edukaziñoaren sustraia, barrura sartzeko bear dan atea. Argi barik ezin liteke ibilli.

Ezin geinke esan bietatik bearrezkoena zein dan. Alkartuak edo bikotzak dirala ta ezin leitezela urrundu esatea oba da. Semien edukaziño guztia txirinka bi onen ganean doa.

Gurasoak, semiak igaroten dabezan aldakuntzak esagutu, ta kontzientzi on bat lortu eragiteko obligaziñoa daukie.

Zazpi urterarte umeak ez daki zein dan onaren aurkibidea; ez dabe ulertuten zer dan onata txarra. Lenengotan lagun urkoaren errespetoak edo norberaren zindotasunak gordeten dauz. Amaramabi urte inguruan lortzen dabe benetako kontzientzia. Erresponsabilitateaz konturatuta bere legepean sartuten dira. Amasei-amazortzi urtetan erresponsabilitate au oraindiño aundiagoa egiten da: on egitea balio bat da; ta txarto egitea gauza-eztankeri bat. Jakintza onek gizon egitera erroten dauz. Orregaitik, erdizkorik ez dau esagututen. Garai onetan asmorik aundienari, ederenari oratuten deutso. Sarritan ikusten dira indarraldi estuetan, bakarrik; eta guztiz ona ez da-

na baztertu egiten dabe. Orregaitik, lagun urkoagaz geinetan zorrotzeziak izaten dira.

Gerotxoago, euren indarraldiaren ezereza ikusita kemona epeldu egiten iakue. Burua makurtuta, pesimismoan jausten dira geinetan.

Gurasuok, zeuen semien aldakuntza larri onetan eduketako obligaziñoa daukazue; baña, batez be, euren barruan sartuteko momenturik ederrena auxe dozue; auxe da biotzean asmo ederrak ereiteko garaia, kontzientzia zabaldu egiten dabe ta. Artukera ona ta borondate ederra arkituko dozuez. Aurreratu euregana bildurrik barik. Betiko egialk eta egizko asmoak ereiten badozuez, biarko mundua zeuona da.

Aita Santuak esaten daberen lez, edukaziño on baten utsunea da katolikoaren ezbearrik aundiena, eta ganera biarko munduaren zoritxarrik kaltegarriena. Guraso asko izaten dira umien txutxerri kontuetan aparteko ardurera eta zurtasuna erakusten dabena, eta euren edukaziñoari jaramonik be egiten ez deutenak, eta kontzientziaren zirikadarik sekulo sentitzen ez dabena.

Obligaziñorik aundiena umeak eduketea da. Baña jakitea bakarrik ez da naikoa. Ekin, egin egin bear dozue. Edonun itxi geinke geure marka. Askoren elburua: egon, egon eta egon izaten da. Eta ez. Ekin, ekin eta kinegaitik aldatu bear dogu.

ARANA



EJEMPLU ON BAT

Españolak sarritan gagoz guztiz arrotuta gure katolikotasuna dala-ta. Ta or gabiz beti burruka prantzesakin eta irlandesak in mor dan geiago ezagutu guran. Au dalata ona da noizean bein azterketa sakon bat egitea gure katolikotasunean, edo katolikotasuna dala esaten dogun onetan.

Españolak daukogun edo daukeenatariko gauzerik txarrena au da: «Arerioa edozein tokietan ikustea. Ta au gertatuten da politikan zein eleizan. Baiño zarata ta istillu gitxiago atara ta ikusi dagiguzan datu batzuek bakarrik.

Urtero-urtero «Pax Christi» batzarrak dei bat egiten deusku: Gabon jaietan Españi-ko familiak bere etxeetara ikasle estranjeru bat ekarteko. Ez da ez, eskeko bat maian jezartea. Lortu nai dana da, gazte onei etxeko berotasuna, ba-kea ta poza, apur bat baiño ezpada be emotea. Ba dei onen arrera guztiz eskasa izan dala esan bearko. Alemanian, karidadezko eta laguntasunezko kanpaña bat jaurti dabe. Kanpaña onen buru nor?, ta Lubke presidentea. Noiz ikusiko dogu au Españian? Kanpaña oneen elburua «zartzaroak ez dau egon bear baztertuta». Alemaniaren erantzuna ezin ohea. Kanpaña au beste kanpaña aundi baten zati bat baiño ez da. Kanpaña onen lenengo urtean laguntasuna etxeko andreengana biurtu eban. 1960 urtean laguntasun au kolorezko ikasleentzat izan zan. Alemanen etxeetan gabonak igarotako ikasleak asko izan ziran.

Irugarren kanpaña, ospitxelentzako izan da. Hamburgo-n milla ta berreun gizon ta emakume eskeini zirean lan gogor eta neketsu onetarako. Len esan dotan lez, aurtengo kanpaña zarren alde doa.

Jauna, eskerrak oraindik gizonen biotzetan maitasuna agertuten dalako. Ala izan dedilla.

EGIN DAIGUN ETXE BAT EMENTXE

Bai. Aldakuntza mendi tontorrean legez. Pozik egoen, bai benetan apostoluak antxe.

Ez da gertatuten bardin apostoluekin eta Barako de Avila-ko arotz gizajo onekin. Miseri gorrian dago. Zazpi seme-alaba ta tellatu txiki bat bere ez. Nik ez dot uste bere poza apostoluen langoa izango danik. Baiña laster ederto egongo da, ba erriko argin batzuek etxea egin-godeutse ta gratis ganera.

Italia-ko «El techo» izeneko pelikulan esaten zana jatorst burura: «Jauna, nondik dator probreen eta umillen arteko alkartasuna? Zergatik ete da?

Bakar-bakarrik gu baiño katolikuago, kristiñauagoak diralako.

ORDAIN GOGORRA

Berlin-en meza bat esanda Dieter Wohlthut izan zanaren alde, 20 urte eukazan.

Arjelia-ko Mascara urian beste meza bat esan da Eugene James izandakoaren alde, 72 urtekoa.

Ordain gogorra egin daben lanerako.

Dieter alemana zan, estudiantia bera. Tiroso josirik il zan Berlin-go orma lotsagarri orren ondoan, emakume bateri errusiko mandatik alemaniko mandara iges egiten lagunduten ebillela: Dieter luze jausi zan. Ta emakume penagarria errusitarren mandara croana izan zan barrero.

Eugene Mascara-ko «Caritas»-en direktorea zan. Onela bada, bere lana musulmanen fami-lietara erropak janaria eta medikamentuak eroatea zan. Beti on egiten. Baiño egun baten, eguerdiko amabiak inguruan: Arjelia-ko terroristak batzuek lepoa kutxillakadaz bete eutsen.

Ordain gogorra.

«Artzai onak bere burua emoten dau bere ar-dien alde, morroiak osterar ardiak itxi ta iges egiten dau».